



Bertsozale Elkartearen Berripapera

Bertsozalea

www.bertsozale.eus

2023ko MAIATZA - 243. zenbakia

Guztia prest Euskal Herriko Eskolartekorako

Ekainaren 3an jokatu da Euskal Herriko Eskolartekoa lurretan.

Sarrerak doan dira eta eskuragai daude www.bertsosarrerak.eus atarian.

Udaberriko ohiko hitzordua izaten da Euskal Herriko Eskolartekoa. 14 eta 18 urte bitarteko Euskal Herri osoko gazteak elkartuko ditu 35. edizioak. Lurraldeetan Eskolarteko txapelketek bere bidea eginda, final handiarekin biribilduko da egitasmoa. lurretan izango da aurten ere eta ekainaren 3an ospatuko da.

Lurralde lurralde jokatu da Eskolartekoetatik sailkatutako 10 bertsolari gazte ariko dira kantuan ekainaren 3an lurretako oholtzan. Apirilean hasi eta orain arte egin dira Eskolartekoak *Oinak buruan* goiburupean.

Gipuzkoan apirilean jokatu zen Lasturren finala, bertatik June Aiestaran eta Danel Etxeberría sailkatu ziren. Nafarroako eskolartekoa maiatza hasieran egin zen Iruñeko Laban eta bertan Kattin Madariagak eta Eki Mateorenak eskuratu zuten lurretan kantatzeko txartela. Aramaion jokatu da finalean jakin genuen, Maddi Agirre eta Sabin

Abarrategi izango zirela Arabako bi ordezkariak.

Bizkaiko eta Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoako eskolarteko finalak izan dira jokatzin azkenak. Joan zen asteburuan egin ziren Gernika-Lumon eta Itsasun hurrenez hurren. Bizkaiko ordezkariak Haizea Telleria eta Ixone Asategi izango dira eta Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoako ordezkariak berriz, Haira Aizpurua eta Ibai Lekuona.

Giro politean jokatu dira Euskal Herri osoan Eskolartekoak, bai kanporaketak eta baita finalak ere. Horregatik espero da lurretako finalean ere herrialdeetan izandako giro beroa izatea.

Gonbidapenak eskura dagoeneko

Sarrera doan izango da eta gonbidapenak dagoeneko eskuragai daude www.bertsosarrerak.eus atarian. Ekainaren 3an 11:30ean hasiko da Euskal Herriko Eskolartekoa lurretako frontoian, eta

saioa amaitutakoan mokadua eskainiko da eta bertaratutakoan artean zozketa egingo da.

Ikastolen Elkarteak eta Bertsozale Elkarteak antolatzen dugu gazteen bat-bateko bertsolari txapelketa; aurten ere lurretako Udalaren laguntza izango du Euskal Herriko Eskolartekoak. Bertsoaletzea eta gazteei jendaurrean kantuan hasteko aukera ematea du helburu egitasmoak. Bat-bateko txapelketa honetaz gain, lurralde bakoitzean bestelako ekintzak ere egingen dira Eskolartekoari lotuta: idatzizko txapelketa edo adin txikiagokoentzako lehiarik gabeko topaketak, besteak beste.



**MAIDER ARREGI
MARKULETA**
Oñati, 2023-05-27
III. Señora Sariketako
Pameladuna

Doinua: *Baserrian jai*o nintzan

Inoiz tokatuko ez den
auzokoaren kiniela,
lentejaz ta babarrunez
betetzen dugun sabela,
zure logelako lore,
nere lorehun logela,
bolleren bisera beltza
ta mariken lentejuela.
Husten ez duten ta pobrez
betetzen duten kartzela,
"Desalojorik ez!" edo
"AHTrik ez!" kartela,
elkarrekin dantzau dauden
Sara, Espatz ta Mikela,
glamour gabeko bitzta
ederrentzat da pamelata.



lurretan egingo da Euskal Herriko Eskolarteko finala aurten ere. //XDZ

Adin-adin berriz egin da Gipuzkoako adinekoen egoitzetan

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Lankuk 21 bertso saio antolatu dituzte 'Adin-adin' ekimenaren baitan. Harrera ona izan du azken urteetan ekimenak, baita aurten ere, eta pixkanaka hazten ari den ekintza da. Maiatzean egin dena zortzigarren edizioa izan da.

Zortzigarren edizioa izan du Adin-adin ekimenak Gipuzkoako adineko pertsonen egoitzetan. 21 bertso saio antolatu dituzte Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Lankuk elkarlanean, eta guztira belaunaldi desberdinetako 25 bertsolari aritu dira kantari.

Azken urteetan harrera ona izan duen ekimena izan da Adin-adin eta pixkanaka zabaltzen joan da. Geroz eta gehiago dira parte hartzeko interesa erakusten duten egoitzak. Aurten adibidez 17 udalerritako 21 egoitzetara iritsi dira bertso saioak, tartean Matia Fundazioak babestutako hiru saio izan dira.

Adinekoen egoitzetan bertso saioak aurrez prestatzen dira egoitza bakoitzeko dinamizatzaile eta animatzaileen bidez egoiliarrekin, bertsolariak joaten direnean parte hartzea errazago aktibatzen. Proiektu honen bidez, bertsolaritza adinekoen egoitzetara iristarazten da eta egoiliarren parte hartzea bultzatzen da besteak beste.



Gipuzkoako adineko 21 21 egoitzetara iritsi dira bertso saioak. //XDZ

Bertso* Eguna –Ahalduntze jaia- ospatuko dute ekainaren 17an Durangon eta lurretan.

Ahalduntze Bertso Eskola Feministaren ikasturte amaierako jaia antolatu dute Durango eta lurretan: Bertso* Eguna. Ekainaren 17an ikasturtean zehar parte hartu dutenen lana plazaratzea izango du helburu egunak.

2015-2016 ikasturtean egin zen lehendabizikoz Ahalduntze Bertso Eskola Feminista, eta geroztik ikasturtero egin da. Aurtengoan modu berezi batean eman nahi diote amaiera bertako kideek, festa giroan elkartuta. Parte hartzaileen lana plazaratzeaz gain, proiektua ezagutaraztea eta bertso munduko emakumeak* elkartzea izango dira Bertso* Egunaren helburu, ondo pasatzearekin batera. Bazkarian izen emateko azken eguna ekainaren 7a izango da.

Emakume* bertsolari guztiei begira ere proiektua jende aurrean aurkeztu eta datorren urterako jendea gonbidatzea da asmoa. Horretarako egun osoko egitaraua antolatu dute ekainaren 17rako.

- 12:00etan bertso-poteoa Durangon.
- 14:30 Bertso munduko emakumeen* bazkaria lurretako Abadetxean.
- 17:30 Bertso saioa.
- 20:00 ERRE azken emanaldia Plateruenan.



Bertso munduko emakumeen* topaleku izan nahi du Bertso* Egunak. //XDZ

2022-2023 ikasturtea

Durangon eta Amasa-Villabonan elkartu dira hilero ikasturte honetan Ahalduntze Bertso Eskola Feministako kideak. Guztira, 23 bertsolari eta hiru gai-jartzaile aritu dira. Hilabetean larunbat bat elkarrekin pasatu dute parte hartzaileek eta eskoletan kantatu, hausnartu, estrategiak elkarbanatu eta zalantzak eztabaidatzeko baliatu dute. Kurtsoan zehar Durangoko eta Amasa-Villabonako taldeak ere elkartu dira elkarrekin eguna pasatzeko.

Taldeak sendotasuna eta konpromisoa hartu ditu, eta datorren urtean ere izango du segida Ahalduntze Bertso Eskola Feministak. Elkar ezagutzen eta ahalduntzen jarraitzeko asmoz eta gogoz daude bertako kideak eta jende berriarentzat ere atek zabalik izango dituzte irailetik aurrera.

Bertso udaberria Euskal Herriko ikastetxeetan

Ikasturte bukaerarekin batera, ekitaldi, ekimen eta ekintza desberdinak izango dituzte bertsoan aritu diren Euskal Herriko gazteek. Askok, gainera, uztailean egingo diren Bertso Udalekuen zain daude.

Ikasturte amaierako jaialdi, kantaldi eta topaketak egin dituzte bertso-eskoletako zein ikastetxeetako hurrek. 250 bertso jaialdi egin dira ikasturtea agurtzeko. Ikasleek gelan egindakoa plazaratzeko, herri mailan zein eskualdeko elkartuta emanaldiak eskaini dituzte jendaurrean. Oholtzan aukera izango dute aurrez prestatutako ikuskizuna eskaintzeko eta baita bat-batean egitekoa ere. Bertso emanaldi hauetan bertsolari gonbidatuak edo musikariak ere izaten dira.

Gipuzkoan 151 jaialdi egin dira, Bizkaian 50, Nafarroan 44, Araban 2 eta Iparraldean 3 Bertsolari Ttiki jaialdi egin dituzte ikasturtea amaitzeko.

2022-23 ikasturtean, 7 herrialdeetan Bertsozale Elkartearen eskutik 29.692 ikaslek landu dute bertsoaritzak. 50 irakasle aritu dira Euskal Herri luze eta zabaleko 229 herritan bertsoak zabaltzen.

Ikastetxeetako jaialdiez gain, beste hainbat saio berezi ere egiten dira ikasturte amaieran bertso-eskoletan, oholtzara igo eta adinkideen aurrean kantuan aritzeko. Hamaika topaketa egiten dira bertso-eskolen artean.

Uztailean, Bertso Udalekuak!

Urteroko ezinbesteko hitzordua izaten dute bertsolari eta bertsozale gazteek uztailean: Bertso Udalekuak. Maiatzean egin dute Bertso Udalekutako hezitzaileek udan egingo duten lanerako prestaketa saioa. Uztailean gaztetxo eta gazteek ahalik eta gehien goza dezaten Amairren, Irañetan, Larraulen eta Zuhatzan egingo diren txandetan. Lau txandetan 160 gazte eta 30 hezitzaile elkartuko dira udaz eta bertsoaz gozatzeko.



Bertsozale Elkartearen eskutik 29.692 ikaslek landu dute bertsoaritzak ikasturte honetan. //XDZ



Puntu jarrita

IBON IZA TOTORIKA

Ur jostaria da bertsoa. Nahinon, gutxien espero dugun uanean, gunean, ez dakit zein zirrikitutik baina, busti gaitzaketen tanta iragarrezinak dakarzkigu, batzuetan zirrikatzaileak, besteetan kitzikariak, bihurriak, beti olgatzeko prest. Hutsuneak betetzeko gaitasun itzela dauka bertsozaleak: hitzez hitz, berbaz berba, esaldiz esaldi, barne erakuntza amaigabeak erakitzen dizkigu, gutu egiten gaitu, saretu, kohesionatu, indartu, trinkotu... Ni neu naizen hau ere bertsozaleak eraike du.

Todor maitea, gure "oholtza birtualak" asko eman dit, asko. Txiolandian, Dylan Inglisen txio bati erantzunez, zuen talde interemotionalen sartu nintzen. Gerora, zuek ezagutzeko eta maitatzeko aukera izan du. Eta, zinez diotsut, batere zalantza izpirik gabe, urte honetan elkarrekin egin dugun ibilbidea oparoa bezain emankorra izan da.

Bat-batean, aspaldiko partez, bertsoan aritzeko abagunea izan dut. Hori gutxi balitz, laguntza eta konplizitate estua aurkitu dut zuen/gure txoko eder horretan, ordenagailuko leiho horretatik argi printza berriak sartu zaizkigu gurean. Zer gehiago eska diezaieket teknologia berriei? Zer gehiago eska diezaieket bizitzako esperientzia berri honi?

Sekula ere ez nuen pentsatuko, ezta hurrik eman ere, uhin erimatzailerek astero-astero gure etxetik Atlantikoa zeharkatuko zutenik. Hori magikoa da, liluragarria.

Bertsozaleak bertsozaleak ditu, eta gurea pluralgile horren beste txatal bat baino ez da, "Todorgintza" deitzen diogun adabaki koloretsua, bertsozalearen beste zatitxo zoragarri bat.

Urruti bezain gertu sentitzen ditut nire kantukideak, milaka kilometrora dauzkadan arren etxeko ditut, lagunak, lagun minak, haiekin partekatzen baititut ardurak eta baita minak ere.

Sare ederra sortu dugu. Ingelesezt "to share" partekatzea da, eman eta hartu. Hartu eta emanda, "Todorgintza" elikatzen, sendotzen, sharetzen jarraituko dugu. Dylan, egunen batean sarean ez den non edo non bertsoan elkartuko gara? Non eta nolako saioa proposatzen diguzu?

Koplak

Euskal Kulturaren Eragiletzan masterra

Euskal Kulturaren Eragiletzan masterra eskainiko du Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak heldu den ikasturtean. Hainbat erakunderen laguntzarekin antolatu dute masterra, tartean, Bertsozale Elkartearekin. Egun euskal kulturak dituen desafioren aurrean, horiei erantzuteko eragileak formatzea du helburu. Ekainaren 30era arte dago zabalik inskripzioa online egiteko aukera.

Poto-Finixa



Joaldunekin solasaldi borobila

Xenpelar Dokumentazio Zentroa

Basarri Bertso Paper Sariketa

Martxan da Basarri Bertso Paper Sariketaren 39. edizioa. Bertso sortak ekainaren 21era bitartean bidali daitezke kultura@zarautz.eus helbidera. Bertso Paper bakoitzak, gutxienez, zortzi bertso izan behar ditu; gaia librea da eta parte hartzaileek gehienez bi lan bidali ditzakete; eta lanak originalak, argitaragabeak eta beste inolako lehiaketetan saritu gabeak izan beharko dira.

ANON YME POP ULAR

Kontrataziorako marketina@lanku.eus helbidera idatzi edo **675.716.472** telefonora deitu